AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5014

7698/2026 EBAZPENA, azaroaren 2koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Bloke Kirurgikoko eta Zerbitzu Orokorren Erizaintzako ondokoa bere kargutik kentzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan, berak hala eskatuta.

Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen otsailaren 28ko 166/2022 Ebazpenaren bidez, Javier Eizaguirre Calcerrada jauna Bloke Kirurgikoko eta Zerbitzu Orokorren erizaintzako ondoko izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan (2022ko maiatzaren 17ko EHAA, 94. zk.).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak kontuan hartuta, Zuzendaritza Gerentzia honek,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Javier Eizaguirre Calcerrada jauna Bloke Kirurgikoko eta Zerbitzu Orokorren erizaintzako ondoko kargutik kentzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan, berak hala eskatuta, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2026ko azaroaren 1eko laneguna amaitzen denetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Langileen Zuzendaritzari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2026ko azaroaren 2a.

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea.

EB (1297/2025 Ebazpena, uztailaren 24koa).

Langileen zuzendaria,
MARÍA PILAR SÁNCHEZ GARDUÑO.